

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

2023. urtean seme-alabak izan edota adoptatzeagatiko laguntzetarako deialdia egiten duen alkatearen 2024ko abuztuaren 9ko Ebazpenaren laburpena (2024/346 Dekretua)

BDNS (Identif.): 785736.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/785736>).

Lehenengoa. Onuradunak

Baldintza hauek betetzen dituzten gurasoak:

2022an jaiotako edota adoptatutako seme-alabengatik emango dira dirulaguntzak.

Onuradunak bost urtez egon behar du Amurrion erroldatuta azken hamar urteetan eta, horietatik bat, gutxienez, modu jarraituan eta jaiotzaren edo adopzioaren egunaren aurre-aurrekoan.

Familia unitatearen urteko diru sarrerak ezin daitezke izan 20.000,00 euro baino gehiago. Laguntzak eman ondoren aurrekontu partidan kreditu erabilgarria egonez gero, eta kasu horretan soilik, eman ahal izango zaie laguntza urteko 20.000,00 eta 25.000,00 euro arteko diru sarrerak dituzten familiei. Diru sarreren bigarren tarte horretan dauden familiei emango zaizkien banan-banako gehieneko zenbatekoak ehuneko jakin batean gutxitu ahal izango dira, hain zuzen ere, diru sarreren lehenengo tarteari dagozkion laguntzak balioetsi eta eman ondoren erabilgarri dagoen aurrekontu esleipenarekin ordaindu ahal izateko beharrezko ehunekoan.

Ezinbestekoa da eskatzailearen familia unitate osoa Amurrion erroldatuta egotea seme-alaba jaiotzen den edo adoptatzen den momentuan, eta eskabidea aurkezten den unera arte betetzen jarraitu behar da baldintza hori.

Bigarrena. Xedea

2023an seme-alabak izan edota adoptatzeagatik norgehiagoka bidez emango diren dirulaguntzak arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Behin betiko onetsi ziren, dirulaguntzak arautzen dituzten gainerako oinarriekin batera, Amurrioko Udalaren 2024ko urtarrilaren 25eko osoko bilkuraren erabakia oinarri, eta haren eduki osoa 2024ko apirilaren 10eko ALHAOn (41. zk.) argitaratu zen.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 10.000,00 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 30 egun natural igaro arte.

Amurrio, 2024ko irailaren 17a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA